

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2025eko azaroaren 29tik abenduaren 5erako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2025/12/05

- **EUSKAL HERRIKO AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOA. Lan eta Enplegu Saila.** Erabakia Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Bizkaiko Lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebazten da Bizkaiko Eraikuntzaren Hitzarmen Kolektiboaren Negoziazio Batzordearen 2026ko lan-egutegia erregistratu, argitaratu eta gordailutzea (48000715011981 espediente kodea).
Xedapena 234- 5or.

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2025/12/01

- **OGASUN MINISTERIOA. Zerga-prozedurak.** HAC/1358/2025 Agindua, azaroaren 20koa, Zergen Zuzendaritza Nagusiak izapidetu behar dituen tributuak aplikatzeko prozeduretan bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoen bidez egindako jarduketan araubidea ezartzen duena eta prozedura horietan erabili beharreko borondatezko ordezkartzaren inprimakia eta eredua onartzea aurreikusten duena.
24255 Xedapena- 4 págs.

2025/12/02

- **OGASUN MINISTERIOA. Zerga-prozedurak.** HAC/1361/2025 Agindua, azaroaren 20koa, Zergapekoek bide ekonomiko-administratiboan erreklamazioak eta errekursoak jartzeko, izapidetzeko eta ebazteko bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoen erabilera arautzen duena eta zenbait inprimaki onartzen dituena. *24369 Xedapena- 64 or.*
- **EKONOMIA, MERKATARITZA ETA ENPRESA MINISTERIOA.** Kreditu-entitateak eta inbertsio-zerbitzuen enpresak. Honen akats-zuzenketa: 999/2025 Errege Dekretua, azaroaren 5ekoa, zeinaren bidez aldatzen baita 1012/2015 Errege Dekretua, azaroaren 6koa, Kreditu-erakundeak eta inbertsio-zerbitzuen enpresak berreskuratzeari eta

suntsiarazteari buruzko ekainaren 18ko 11/2015 Legea garatzen duena eta Kreditu-erakundeen gordailuak bermatzeko funtsei buruzko abenduaren 20ko 2606/1996 Errege Dekretua aldatzen duena. [24370 Xedapena-1 or.](#)

2025/12/03

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Presako neurriak.** 14/2025 Errege Lege Dekretua, abenduaren 2koa, Sektore publikoaren eremuko ordainsarien arloan presako neurriak onartzen dituen. [24445 Xedapena- 5or.](#)
- **15/2025** Errege Lege Dekretua, abenduaren 2koa, Toki-erakundeen eta autonomia-erkidegoen inbertsio-jarduerari laguntzeko presako neurriak hartzen dituen eta abenduaren 5eko 1007/2023 Errege Dekretua aldatzen duena. Abenduaren 5eko 1007/2023 Errege Dekretuaren bidez onartu egiten da enpresaburuen eta profesionalen fakturazio-prozesuak jasaten dituzten sistema eta programa informatikoek edo elektronikoen hartu beharreko betekizunak eta fakturazio-erregistroen formatu-estandarizazioa ezartzen dituen erregelamendua. [24446 Xedapena- 7 or.](#)
- **KANPO ARAZOETAKO, EUROPAR BATASUNEKO LANKIDETZAKO MINISTERIOA.** Administrazio-prozedurak. Kudeaketa informatizatua. AUC/1366/2025 Agindua, azaroaren 26koa, Kontsul-tasen maiatzaren 10eko 9/2011 Legeak araututako pasaporte arrunta egiteko eskaera-tasa telematikoki ordaintzeko kudeaketa-arauak onartzen dituen. Tasa horren ordainketa Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioaren egoitza elektronikoaren bidez kudeatuko da. [Xedapena 24447- 2 or.](#)

2025/12/04

- **ESTATUKO BURUZAGITZA.** Mugikortasun jasangarria. 9/2025 Legea, abenduaren 20koa, Mugikortasun Jasangarriari buruzkoa. [24545 Xedapena- 143 or.](#)
- **GOBERNUAREN PRESIDENTZIA.** Antolamendua. 1081/2025 Errege Dekretua, abenduaren 2koa, errege-dekretu hauek aldatzen dituen: 1412/2000 Errege Dekretua, uztailaren 21koa, Kanpo Politikako Kontseilua sortzen duena; eta 676/2025 Errege Dekretua, uztailaren 28koa, Gobernuko Presidentetzaren egitura onartzen duena. [24546 Xedapena- 3 or.](#)
- **PRESIDENTETZAKO, JUSTIZIAKO ETA GORTEEKIKO HARREMANETAKO MINISTERIOA.** Animaliak babestea. 1083/2025 Errege Dekretua, abenduaren 2koa, errege-dekretu hau aldatzen duena: 53/2013 Errege Dekretua, otsailaren 1koa, Saiakuntzak egiteko eta zientziazko beste helburu batzuetarako –irakaskuntza barne–

erabiltzen diren animaliak babesteko oinarrizko arauak ezartzen dituen. 24547 Xedapena- 13 or.

- **OGASUN MINISTERIOA.** Gastu publikoak. Ekitaldiaren itxiera. HAC/1375/2025 Agindua, abenduaren 3koa, agindu hau aldatzen duena: HAC/1272/2025 Agindua, azaroaren 4koa, 2025eko ekitaldia ixteko eragiketak, gastuen aurrekontuari eta aurrekontuz kanpoko eragiketei buruzkoak, arautzen dituen. 24548 Xedapena- 2 or.
- **1086/2025 Errege Dekretua,** abenduaren 3koa, Gipuzkoako Foru Aldundiari zuzeneko dirulaguntza bat ematea arautzen duena tunelak Europa barneko errepideen sareko tunelen gutxieneko segurtasun-baldintzei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 29ko 2004/54/EE Zuzentaraura egokitzeko. 24550 Xedapena- 9 or.
- **Itsas trafikoa.** TRM/1376/2025 Agindua, azaroaren 25ekoa, otsailaren 6ko 210/2004 Errege Dekretuaren I. eranskina aldatzen duena (Errege Dekretu horrek itsas trafikoari buruzko jarraipen- eta informazio-sistema ezartzen du, itsasontzien jakinarazpen-sistemetako nahitaezko informazioari dagokionez). 24551 Xedapena- 4 or.

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - 48009 BILBAO